itzulpena: Iker Alvarez

Dylan Thomas

Munduko
Poesia
Kaierak

Dylan Thomas

itzulpena: Iker Alvarez

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© Dylan Thomas
© itzulpenarena: Iker Alvarez
© edizio honena: Susa

2017ko martxoa

Munduko Poesia Kaierak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
http://kaierak.com

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Aiurri bereziko artista ugarirekin gertatzen da ez dela sinplea bereizten mitoa eta sortzailea. Kontu zaharra da, gutxienez XIX. mendeko bigarren erditik, artista askoren irudi publikoa gizartearen bazterrekin identifikatu izan baita. Eta artisten artean, nola ez, poetak. Paul Verlaine-k 1984an argitaratutako liburuaren izenburuak (Baudelaireren poema batetik hartua) ondo ematen du aditzera irudi hori: *Poeta malditoak*.

XX. mendeko poeta anglosaxoi malditoetarik genuke, beraz, Dylan Thomas. Swansean jaioa 1914an familia aski kultu batean, haren talentu goiztiarrak zein bizimolde ez-konbentzionalak (edanari emana, hamaika eskandalu eragile, diru arazoak) Thomasen mitoa hanpatu zuten; hainbeste ezen, zenbait kritikariren aburuz, poeta aski ezagun eta arrakastatsua izanagatik, haren poesia ez baita berehalakoan ulertzeko modukoa.

Ezin esan Thomasen poesia muturreko hermetismoetan erortzen denik, baina hizkuntza poetikoa obsesiboki lantzen zuenez (horrekin ere horditzen omen) eta mundu sinboliko berezia osatzen, haren poemek sarri eskatzen diote irakurleari ulermen aha-

legina. Iruditeria horren parte dira, alde batetik, Gales jaioterria (nahiz eta maiz ezkutatzen saiatzen zen), eta bestetik, tradizio biblikoa, zeinaren zantzu esplizitu asko topatuko dituen irakurleak poemotan. Erkaketa harrigarriak egiteko gai zen (antologiako lehen poema kasu, *Bihotzaren eguraldiko prozesu batek*), eta horrek, besteren artean, XIX. mende bukaerako sinbolismora garamatza. Tradizio anglosaxoian kokatzen delarik, baita lehenagora ere, William Blake batengana esaterako. Bestalde, haren poesiaren dohain nabarmenetarikoa dugu hizkuntza poetikoaren intentsitatea, hein handi batean soinuzko elementuen taxuera berezi baten bidez (fonemen aukeraketa, erritmoa) lortzen zuena. Antza denez, txikitatik irakurri zizkioten familian poema zein bestelako testu literarioak, eta akaso horregatik garatu zuen poemen musikarekiko jaidura hori. Errezitatzeko modua ere aski kantaria zuen, egun sarean errazki aurkitzen diren grabazioek (ugari egin zituen BBCrako) erakusten dutenez.

1950ean Ameriketako Estatu Batuetan bira poetiko bat egin zuen, gerora etorriko ziren ugariren estreinakoa, eta luze gabe Thomasen poeta gisako fama eta mitoa are gehiago zabaldu ziren. Sona hori beste

sortzaile hainbatengana iritsi zen berehala gainera. Ezagun denez, Robert Zimmerman-ek, Literatura Nobel saria izan den Bob Dylan-ek alegia, harengandik hartu zuen izengoitia 1959an, eta bere letretan Thomasen zantzuak sumatu dituzte kritikariek. Sylvia Plath-ek ere haren eragina aitortu zuen, bien poesiaren izaera konfesionalean antzeman litekeen moduan.

1934an argitaratu zuen lehen poema liburua, *18 poema* izenekoa, gerora Thomasen poema ikurretako batzuk gordetzen dituena: *Ez da gailenduko heriotza*, *Fusa berdean zehar*. Ondoren etorri ziren, besteak beste, *Hogeita bost poema* (1936) eta *Heriotzak eta sarrerak* (1946). Azken horretan II. Mundu Gerraren zantzuak topatzen ahal dira, eta baita Thomasen beste poema klasiko bat ere, *Garo muinoa*. Prosazko zenbait lan azpimarragarri ere idatzi zituen; tartean, Koro Navarrok 1999an euskarara ekarritako *Artistakume baten erretratua*.

Iker Alvarezek mimoz itzulitako poemok mitotik poesiarako bidea erakusten diote irakurleari. Bide maiz sigi-sagatsua, baina beti txundigarria.

BEÑAT SARASOLA

Bihotzaren eguraldiko prozesu batek

Bihotzaren eguraldiko prozesu batek
Umela lehortzen du; urrezko tiroak
Trumoitzen du hilobi hotzean.
Zainen aldeko eguraldi batek
Gaua egun bihurtzen du; haien eguzkietako odolak
Zizare biziduna argitu.

Begietako prozesu batek hezurrei
Ematen die itsutasunaren berri; umetokiak
Heriotza dakar, bizitza isuriz.

Begien eguraldiko iluna
Argiaren erdia da; itsaso ezagunak
Doitu gabeko lurretan jotzen du.
Hankartea baso bihurtzen duen haziak
Bere frutaren erdia ziztaz hartzen du; erdia jausten da,
Geldo, haizea lo.

Hezur-haragietako eguraldia

Umel eta lehorra da; bizkor eta hilotza
Bi mamu bailiran mugitzen dira begien aurrean.

Munduaren eguraldiko prozesu batek
Mamua mamu bihurtzen du; amaren ume bakoitza
Bere itzal bikoitzean datza.
Prozesu batek ilargia eguzkiaren kontra bidaltzen du,
Azalaren gortina urratuak itxi;
Eta bihotzak laga du bere hilotza.

Amodioaren ukidurak kilikatuko banindu

Amodioaren ukidurak kilikatuko banindu,
Bere alde lapurtu ninduen neska iruzurti hark,
Bere lastoetatik irtenda nire soka bendatua hautsi
zuenak,
Kilima gorriak abere erditu berriak bezala
Oraindik nire biriketatik barre bat urratu nahi balu,
Orduan ez nioke ikararik ez sagar ez uholdeari
Ezta udaberriko odol txarrari ere.

“Arra ala emea izango ote?” diote zelulek,
Eta arana jausten utzi, haragitik sua legez.
Ile jaioberriak kilikatuko banindu,
Orpoetan sortu ziren hegal-hezurrak,
Edo gizon-azkurak ume-izterrean,
Orduan ez nioke ikararik urka zein aizkorari,
Ez gurutzatzen diren gerra-zutoinei ere.

“Arra ala emea izango ote?” diote hatzek
Paretan marraztuz neska berdeak eta haien gizonak.
Ez nintzateke amodio-bortizkeriaren beldur

Gose bihurriek kilikatuko banindute
Beroa entseatzen nerbio gori batean.
Orduan ez nintzateke hankarteko deabruaren beldur
Ezta hilobi berritsuaren beldur ere.

Maitaleek ukiduraz kilikatuko banindute,
Ez zimurrik, ez masail jausien gaineko
Gizatasun zahar eta zimelduzko ilerik ezabatzen ez
duen ukiduraz,
Denbora, karramarro eta sehaska maitagarriek
Gurina bezain hotz utziko nindukete, eulientzako;
Itsaso zikin batek itoko ninduke, maitaleen oinetara
Iritsita hilotz.

Deabrua eta biona da mundu honen erdi bana,
Neska bati darion drogaz mozkor
Bere begiak ziztatzen duen kimu inguruan
kiribiltzen.
Agurearen hanka-hezurra nirearekin muin bakarra
eginda,
Itsasoko sardinzar guztien usainaz,
Eseri eta azkazal azpiko zizareari nago begira
Higatzen duen bitartean nire haragia.

Eta horixe da ukidura, kilikatzen duen ukidura
bakarra.
Bere sexuarekin batera kulunkatzen den tximu
hezurtsuak
Ez du maite-ilun heze edo haurtzainaren keinutik
Irri baten gauerdia sekulan jasoko,
Ezta edertasuna aurkitzean ere, maitalearen,
amaren,
Maitaleen bularretan; edo hautsak ukitzen dituen
Bere sei oinetan behera.

Zer ote, ukidura? Nerbioaren gainean Heriotzaren
luma?
Zure ahoa, maitea, muxuaren kardua?
Zuhaitzean arantzaz jaiotako nire hezur-haragizko
Kristoa?
Heriotza hitzak haren hilotza baino lehorrago dira,
Nire zauri berritsuek daukate zure ilearen arrastoa.
Ukidura honek kilikatuko ninduke:
Gizakia bedi nire metafora.

Nire artisautzan edo arte bakartian

Nire artisautzan edo arte bakartian,
Gau isiletan egina,
Ilargia bakarrik ozen denean
Eta maitaleak ohean dautzanean
Samin guztiak beso artean,
Argi kantari baten ondoan lan dagit
Anbiziorik ez dut, ez dut ogirik helburu,
Ez harrokeria, ez xarma-trukerik ere
Bolizko eszenatokietan,
Haien bihotzik sekretuenaren
Ordainsari xumea baizik.

Bazterreko gizon harroarentzat gabe,
Ilargi ozenetik dut idazten
Itsas-bits orriotan;
Dorreetako hildakoentzat ez,
Haien urretxindor eta salmoekin,
Maitaleentzat baizik, besoak
Adin-minen inguruan jarririk,
Zeintzuek laudorio edo sosik eman ez
Eta nire arte edo artisautzaz axolarik ez duten.

Inork ere ez du sinesten

Inork ere ez du sinesten saguzarrak bezain itsu
Oihurik ez dagiena izar bat tiroz jausten denean;
Ikara biziaz oihu egiten ez duena
Txori bat, lumak behera, harea mugikorrean itotzen
denean;
Fedean zauririk irekitzen ez duena
Argi oro joanik bizitza heriotza denean.

Inork ere ez du sinesten oihukatzen ez duena
Jainkorik ez dela;
Berotan hotzik sentitzen ez duena;
Uda betean udaberriaren zain ez dagoena;
Inork ez du sinesten neska bularduna, edo, gazte eta
berde,
Zeru zaharraz trufa ez den gizona.
Inork ere ez du sinesten arrazoirik bilatzen ez
duena.

Sinetsi eta salbatua izan. Inork ere ez du sinesten
Egile eta salbatzailea madarikatzen ez duena;
Inork ere ez du sinesten, lur-tumore honen gainean,

Bere fedea eskuan ez duena;
Inork ez, inork ez, inork ez.

Eta hau egia da: inor ere ezin da bizi
Jainkoa sakon hilobiratu eta, ondoren,
Haren eskeletoa berreskuratzen ez duenik;
Inor ere ez desegin eta sortzen ez duenik,
Hezurretan fede berri bat aurkitzen ez duenik,
Haragirik uzten ez dionik saihets eta lepoari;
Inor ere ezin da bizi,
Deseginda, bere azken fedea egiten ez duenik.

Arte poetikoaren inguruko oharrak

Ez nezake amestu inoiz hainbeste gertakari zirenik
Liburu-azal barruko munduetan
Hitzen halako harea-ekaitz eta izozkada
Halako bake harrigarri, halako barre handia
Hainbeste argi, horren itsugarri, orrietan
barreiaturik
Milioi bat apur-zatitan
Hitzak, hitzak, hitzak dira guztiak
Eta haietako bakoitza betirako bizirik
Bere plazer eta lorian, argi eta bitxi.

Gure amets eunukoek

I

Gure amets eunukoek, hazirik gabe argipean,
Amodioaren argitan bihotz-aldarteak,
Kolpatzen dituzte beren mutilen gorputz-adarrak,
Eta, oin hegalariez xal eta izaren artean,
Emaztegai iluna apaintzen dute; gaueko alargunak
Beren besoetan dira.

Nesken itzalak, hil-oihalen zaporeaz,
Ilundu ahala, gauerdi-polea hilobi-husleek erauziko
dituzte
Zizarearengandik; beraien ohe gainetan hautsitako
Gizonen hezurretatik.

II

Gure garai honetan armadunak eta beren maitaleak
Dimentsio bakarreko mamuak, elkar maite dute
fotograma-biragarri batean,

Gure begi zurrunarentzat bitxi,
Eta puztu bitartean gauerdiko ezerezak dituzte
mintzagai;
Kamerak itzalita, lasterka joan ohi dira beren zulora
Eguneko patioaren azpian.

Arku lanpara eta gure burezurraren artean dantzan
dabiltza,
Beraien tiroak entseatzen dituzte, gauak uxatzen;
Itzalen ikuskizuna dakusagu muxukatzen edo
hiltzen,
Zeluloide zaporez maitasunari gezurra ematen.

III

Zein da mundua? Gure bi loen artean, zein
Iratzarriko da sendagaiek eta haien beharrak
Begi gorrizko lur hau suspertzen dutenean?
Argiaren irudiak eta haien manera jantziak urruti
bidali,
Gizon dotore eguzkitsuak, Galestar dirudunak;
Edo gau-atonduak aurrera eraman.

Argazkia begiarekin ezkondu da,
Eta bere emazteari alde bakarreko egi-azala
mentatzen dio;
Ametsak xurgatu du lotiaren fedea,
Hil-oihalez jantzitako gizonak heganez mamituko
direla.

IV

Hau da mundua: maitasunez eta uzkur
Mugitzen garenean urratzen diren uniformeen
Irudi gezurtia;
Lurperatuak beren zakuetatik ostikoz ateratzen
duen ametsa
Beraien zaborra bizia bezala lauda dadin.
Hau da mundua. Izan fedea.

Guztiok egingo dugu oihu oilarren antzera
Aspaldi zendutakoei deika; gure tiroek
Plateretako irudiak erauziko dituzte;
Adiskide egokiak izango gara bizi artean,
Eta dirautenak maita ahala loratuko dira;
Urrutira baitoaz, lauda bitez gure bihotzak.

Hasperenetik

Gutxik irten ohi du hasperenetik,
Minetik ez, baina, agoniaren aurretik
Gailendu natzaio-eta; arima hazi egiten da,
Ahaztu, negar dagi;
Gutxik irteten du, probatu eta gustuko izaten denik;
Denak ezin du huts egin;
Behar du egon, arren, ziurtasunik,
Ez bada ongi maitatzeko, ez,
Eta hori egia da porrot eternalaren ostean.

Horrelako borroka eta gero, ahulenek dakite,
Hiltzea baino gehiago dago;
Min latzak galdu edo zauria estaliz gero,
Luzeegi sufrituko du
Damu ezaz, andrerik ez uzteagatik
Bere soldaduaren zain, odol garratza isurtzen duten
Hitz isuriez zikindurik.

Nahikoa balitz, mina arintzeko nahikoa,
Damu sentitzea eguzkitan pozten ninduena
Hondatzen denean,

Nolako poza izan zen horrek iraun bitartean,
Lauso aski, eta gezur gozo asko izanez gero,
Hitz hutsek jasan litzakete sufrikario nahi beste
Eta nire eriak sendatu.

Nahikoa balitz, hezur, odol eta nerbio,
Garun bihurriak, molde oneko gerriak,
Haztamuka txakur-plateraren azpian zerbaiten bila,
Orduan gizonak behar luke sendatu ondoezaz.
Eman daitekeen guztia eskaintzen dut:
Ogi apur, biltegi eta arnesak.

Urriko poema

Hogeita hamargarren urtea nuen zerurako
bidean
Esnatu nintzen, portu eta auzoko basoa entzutean
Baita itsasertza ere, muskuiluz beterik,
Koartzek apaizturik
Deika goizari
Eta urak otoitzean; karranka, kaio eta beleak
Sare-paretan itsasontzien kolpeak
Lurreratu nendila
Segundo hartan
Lotan zetzan hirian; bideari lotu nintzen.

Hasi zen nire urtebetetzea, eta hegazti
Urtarrek, eta hegodun zuhaitzetako hegaztiek airatu
zuten nire izena
Baserri eta zaldi zurien gainetik
Altxatu nintzen
Udazken euritsu batean
Eta kanpora atera, nire egun guztien euriaren
azpitik.

Itsasgora zen, eta koartza urperatu zen mugaz
gaindiko
Bidea hartu nuenean
Hiriko atariak
Halaber, itxi ziren, hiria esnatzean.

Hegatxabal udaberrialdi bat, hodei
Bihurri batean, eta bide ondoko sasiak zozoen
txistuez
Lepo; urriko eguzkia
Udakoaren gisan
Muinoaren bizkarrean,
Klima leunak izan ziren hemen, eta kantari goxoak
bat-batean
Azaltzen dira goizez; ni galdurik ibili eta entzun
nuen
Euri bustia,
Haize hotza,
Arretaz, azpiko baso urrutian.

Txikitzen ari zen portua euri zurbilaren
azpian
Eta itsas azalean, eliza umela, barraskilo bat bezala;
Bere adarrek zeharkatzen lanbro-gazteluak

Hontzak bezain nabarrak
Baina udaberri
Eta udako lorategi guztiak alegiazko istorioetan
loratzen ari ziren
Mugaz harago eta hegatxabal hodeiaren azpian.
Goza nezake
Nire urtebetetzea;
Hor, baina, irauli zen eguraldia.

Landako zorionetik urrundu zen
Eta beste airean eta urdinera aldatutako zeruan
zehar
Udako mirari bat jario zen beste behin
Sagar,
Udare eta masusta gorrien eskutik
Eta aldaketa horretan argi ikusi nituen umeak
Ahaztutako goizak, bere amarekin ibiltzen zenean
Eguzki argiaren
Paraboletan
Eta kapera berdeen kondairetan zehar

Bi aldiz kontatu ziren haurtzaroaren
larreak,

Haren malkoek nire aurpegia erre, eta haren
bihotza nirearen baitan mugitzen
zenean.
Hauek ziren basoak, erreka eta itsasoa
Non haur batek
Hildakoen uda
Entzun bitartean bere pozaren egia zuhaitz, harri
Eta ur lasterreko arrainei xuxurlatzen baitzien.
Misterioak, orduan,
Biziki abestu zuen
Mugitu gabe, uretan eta txio-kantuetan.

Eta goza nezake nire urtebetetzea
Baina irauli zen eguraldia. Eta aspaldi hildako
umearen
Pozak sutsuki abestu zuen
Eguzkitan.
Hogeita hamargarren urtea
Nuen zerurako bidean; gelditu nintzen orduan uda-
eguerdian
Urriko odolak beheko hiria orbeldu arren.
Otoi, kanta dadila
Nire bihotzaren egia
Muino altu honetan, urte baten itzulian.

Esango al da jainkoek hodeiak kolpatu dituztela

Esango al da jainkoek hodeiak kolpatu dituztela
Trumoiek madarikatzen dituztenean?
Esango ote da negarrez direla, eguraldiak ulu dagienean?
Ostadarra izango ote da haien tuniken kolorea?

Noiz ari du euria jainkoak diren lekuan?
Esango ote da ureztatzeko ontziaz gu ihinztatu
Edo uholdeak askatzen dituztela?

Esango ote da, Venusen antzera,
Jainkosa zahar baten bularrak estutu, ziztatu egin direla,
Gau hezeak errieta egiten didala, haurtzain baten legean?

Jainkoak harriak direla esango da.
Durundatuko ote du jausitako harri batek lurrean,
Hartxintxar jaurtiaren errepika? Harriek hitz egingo dute,
Bada, mihi orotako hitzez.

Esku-argiek distira egingo balute

Esku-argiek distira egingo balute, aurpegi saindua,
Ezohiko argi-oktagono batean harrapaturik,
Itzaliko zen, eta amodioaren edozein mutilek
Bi aldiz begiratuko luke zoritxarrean jausi baino
lehen.
Haien ilun pribatuan aurpegierak
Haragizkoak dira, baina betor egun faltsua,
Eror biezazkio ezpainetatik galdutako pigmentuak,
Momia zapiek erakuts bezate bular zahar bat.

Bihotzarekin arrazoitzeko esan didate,
Baina bihotzak, buruak legez, bere kasa narama;
Pultsuaren arabera arrazoitzeko esan didate,
Azkartzen denean, ekintzen erritmoa aldatzeko
Soroa eta teilatua maila berean jarri arte
Azkar mugi nadin aurre eginez denborari,
Bizarra Egiptoar haizetan dabilkion gizon isil horri.

Urte luzetako esanak entzun ditut,
Eta urte askok aldaketarik behar lukete ikusi.

Parkean jolasten bota nuen pilota
Oraindik ez da lurrera iritsi.

Lehergarri berdean zehar

Lehergarri berdean zehar lorea gidatzen duen
indarrak
Nire adin berdea gidatzen du; zuhaitz erroak
abiarazten dituen horrek
Hondatzen nau.
Ez dut hitzik arrosa okerrari esateko
Neguko sukar horrek berak okertzen duela nire
gaztetasun hau.

Ura harri artean gidatzen duen indarrak
Nire odol gorria gidatzen du; erreka marmarlariak
lehortzen dituen horrek
Argizari bihurtzen du nirea.
Ez dut hitzik nire zainei xuxurlatzeko
Mendiko iturburutik aho berberak zurrupatzen
duela.

Urmaeleko ura irabiatzen duen eskuak
Iraultzen du mugikor harea; haize bizia lotzen duen
horrek
Nire ehortze haize-oihala biltzen du.

Ez dut hitzik zintzilik dagoen gizonari esateko
Urkatzailearen kare bizia nire lohi beretik irten zela.

Denboraren ezpainek iturburutik xurgatzen dute;
Maitasuna isuri eta batzen da, baina jausitako
odolak
Bere zauriak arinduko ditu.
Ez dut hitzik eguraldiaren haizeari esateko
Denborak zeru batez izar guztiak inguratu dituela.

Eta hitzik ez dut maitalearen hilobiari esateko
Zizare oker bera nire oihalera hurbiltzen ari dela.

Orria sinatu zuen eskuak

Orria sinatu zuen eskuak hiri bat eraitsi zuen;
Bost behatz subiranok arnasari zerga ezarri zioten,
Hildakoak bikoiztu eta herri bat erdibitu;
Bost erregeok erregetu zuten heriotza.

Esku bortitza bizkar malkartsu baterantz,
Hatz-koskorrak klarionaz lotzen dira;
Antzara baten lumak bukatu du hizketa
Bukatu zuen hilketa.

Ituna sinatu zuen eskuak izurria landatu zuen,
Gosea areagotu, eta langostak etorri ziren;
Handia da gizakia izen zirriborratu batez
Menperatzen duen eskua.

Bost erregek hildakoak zenbatu bai, baina ez dute
Orbanik samurtzen, ez bekokirik igurzten;
Esku batek errukia kudeatzen du beste batek zerua
legez;
Eskuek isurtzeko malkorik ez dute.

Egiaren alde hau (Llewelyn-entzat)

Egiaren alde hau
—Ez duzu ikusten, agian, seme,
Zure begi urdinen errege,
Gaztaroko erresuma betean,
Inozentzia eta erruzko
Zeru axolagabeen azpian,
Dena baita egiteke—,
Bihotzez edo buruz keinu egiten
Hasi baino lehen,
Kiribildu eta isurtzen da
Ilunaren bihurguneetara
Hilotz errauts legez.

Ona eta txarra, bi bide
Zure heriotzaren inguruan mugitzeko
Itsas-oldarraren parean,
Aro itsuan, zure bihotzaren errege.
Arnas bezala putz dagite ero
Zeharkatzen gaituzte, negar batean
Gu biok, baita gizaki ororen arima ere

Eta badoaz
Ilun inozentera, eta ilun errudunera, eta badoaz
Heriotza onera, eta heriotza txarrera, eta orduan
Azken elementuan
Izarren odol, airatzen dira.

Eguzkiaren malkoak bezala
Ilargiaren hazia bezala, zaborra,
Sua, haserre bat airean
Hegan zeruan, zure sei urteen errege
Eta desira gaiztoa,
Ororen hasieran: landare,
Animalia eta txoriak,
Ur eta argia, lur eta zerua;
Zu mugitu aurretik azaltzen da,
Eta zure ekintza eta hitz denon
Egia bakoitza, gezur bakoitza,
Hiltzen da, juzkatu gabe, maitekor.

Hogeita lau urte

Hogeita lau urte oroitzeko gai dira nire malkoak.
(Lurpera daitezen hilak, hobian erditzera joan
daitezen beldurrez.)
Ate naturalaren hankartean jostunak bezala makurtu
nintzen,
Bidaia baterako hil-jantzi bat josten
Eguzki haragijalearen argitan.
Hiltzeko jantzita, hasi zen mugitze sentsuala,
Diruz gainezka nire bena gorriak,
Auzo oinarrizkoaren azken norabidean
Aurrera noa betiak iraun artean.

Ikuskaria eta otoitza

I

Nor
Zara zu
Ondoko gelan
Jaio berri dena
Neuretzako ere hain ozena
Ezen entzuten ahal baitut
Umetokia irekitzen eta ihes iluna
Mamuaren gainean eta erori berri den umea
Txepetx baten hezurra bezain fina den paretaren atzean?
Denboraren suntsipena eta joan-etorria ezagutzen
Ez duen gela odoltsuan datza jaiotza
Eta giza bihotzaren aztarnak
Ez du bataiorik errespetatzen
Bai iluna ordea bedeinkatu baitu
Basati jaio den
Umea

Egon

Behar dut

Harri bat bezain geldi

Txepetx hezurrezko paretaren

Ondoan entzuten ezkutuan dagoen

Amaren oihuak eta minaren

Buru iluna arantza baten gisan etorkizunari deika

Eta mirariaren emaginak kantatzen ezen jaioberri iskanbilatsuak

Sutan bere izena eta bere sugarra ezartzen dizkidan arte

Orduan haren koro goriak pareta hegaduna

Urratu eta bere bizkarretik

Erauzi eta bota du iluna

Distira biziko

Argira

Txepetx

Hezurra

Iraulkatzean

Eta argi lehena haren

Korrontearen haserrez batu

Zeru argiztaile eta ahoan su batez ekarririk

Kulunkatu zuen ama ihinztatuaren Erreinu etorrian

Bat-bateko terroreak galduta distiratsu ihes

Egingo dut lehen estalia zen gelatik
Alferrik negarrez bere
Musuaren
Kalderoian

Eki
Birakarian
Haren hegal
Bitsezko zikloian
Galdurik bainintzen negar
Naizen hau gizakiz bustitako tronuan
Bere korrontearen lehen haserrean
Eta laudoriozko distirak isil beltzera itzuliak
Urtu eta doluz dira galdurik bainintzen
Etorri naizen hau portu
Mutura eta aurkitzen ohi duenarekin
Batera haren zauriaren
Eguerdi gorenak
Itsutu du ene
Negarra.

Hor
Biluzik makur
Esnatuko naiz haren

Su-bularraren tenpluan
Kaiolatik askatu zen itsas hondoko
zoramenaren aurrean epaileak kolpatuta eta
bidalitako hautsa igoz doa pikor
bakoitzak haren sua duela.
Oi goranzko espirala
Giza-goizeko urna
Sarraskijaletik lurra
eta

Itsaso
Jaioberriak
Eguzkiari loriak
Aurkitzen ohi duena
Eta Adan zutik jarrita
Sorrerari buruz kanta batean!
Oi umeen hegoak! Antzinako gaztea
Ahanzturaren labarretik zaurirantz hegan!
Borrokan beti hiltzen direnen zeruranzko bidea!
Santuen gertaria beren ikuskariekiko!
Mundua etxerantz jausten!
Min guztia aske
Isuri eta hil
naiz

ni.

II

Galdu zirenen izenean haragi ustelezko zelai
Gainean loriatzen direnak
Hileta kantuaren azpian
Zama-txorien kanta
Hauts berde eta
Itoarekin astun
Lurpeko mamua eramanez
Polena legez luma beltz eta moko lohitsuan
Otoitz dagit baina ez naiz osorik deitorearen zati
Poza mugitu baitzait bihotz-hezur muin barrukoenean

Izan ere bere amaren esnetik eki eta ilargi ikasten duena
Ezpainak erre eta loratu baino lehen itzuliko da
Jaiotzaz odoldutako gelara
Paretako txepetx hezurraren
Atzean
Eta mututu
Gizon guztientzako
Umetako argi maitea edo kaiola itsugarria

Ekarri zuen umetokiak aharrausi haren etortzearen aurrean.
Ilun erdiko mendi ez kristauan galdutakoaren izenean otoitz dagit

Hildakoei utz diezaien atseden hartzen beren esku arantzadunengatik
Kexu izan arren haren munduko zauriaren tenplura jaso daitezen
Odol tantaren lorategiak eutsi diezaion harrizko ostalariari
Ilunean lo egin eta arroka sakonak
Ez dezan esna
Bihotz hezurrik
Baizik puska dadin eguzkiak bidali ez zuen mendi koroan
Orduan hautsa kolpeka deusezta bedi ibai errozko zelaian
Betiereko amildu zen gauaren azpian.

Betiereko erortzen den gaua izar eta herri ezaguna da
Legio loarentzat zeinaren mihi-ezkila jotzen baitut
Haren argi-jauziaren doluan itsaso eta lurretan zehar
Eta ezagun ditugu azkenik
Leku
Modu
Labirinto
Barnebide
Auzo eta hilobi denak
Betiereko erortzean.
Orain lo dauden mapagileen lazaro arruntak

Otoitz dagi sekulan esna eta jaiki ez dezaten
Heriotzaren herria bihotzaren tamainakoa baita

Eta galduen izarra begien irudikoa.
Aitagabearen izenean
Ez-jaioaren izenean
Eta emagindun goizen
Esku zein tresnen
Ez-desiratzaileenean
Inoren izenean ez
Orain edo inor
Ez
Izateko otoitz
Dagit eki gorrimina
Bira bedi hilobi gris
Eta buztin kolorea isuri dezan iluntze interpretatuan
Bere martiritzaren eta lurreko iluntasun ezagunaren gainean amen.

Otoitzaren izkina hartu eta su naiz piztu
Eguzki supituaren bedeinkazioz.
Madarikatuen izenean
Atzera begira eta ihes negike
Ezkutuko lurrera
Baina eki ozenak

Zerua kristautzen du.
Aurkitzen nau. Errieta
egin biezat eta ito
Bere lurraren zauripean.
Argitzeaz erantzun du nire negarra.
Nire ahotsak erretzen du bere eskuan. Orain
Galdua naiz Izaki Itsugarriaren baitan.
Orro dagi eguzkiak otoitza bukatzearekin batera.

Inoiz izan zen

Izan al zen garairik haur-zirkuetan dantzariek
biolinez
Zalantzak bare zitzaketena?
Behin batean egiten ahal zen liburuengatik negar,
Baina denborak abian jarri du bere harra.

Ez daude seguru zeru-arkuaren azpian.
Gauzarik seguruena da gauza ez jakina.
Zeru-zeinuen azpian, besorik ez dutenen eskuak
Dira eskurik garbienak; eta, mamu bakarti
bihozgabeak
Minik ez duen bezala, ongien ikusten du itsuak.

Londresko ume baten heriotza, su bidezkoa, deitoratzeari ukoa

Inoiz ez, gizadia sortu,
Txori-piztia eta lorea aitatu
Eta oro apaltzen duen ilunak
Hitzik gabe kontatu arte azken argiaren haustura,
Ez da itsasotik heltzen ordu geldia
Arnesdun, jauzika

Eta itzuli behar dut ur-apaingarrizko
Sion biribilera
Eta arto buruaren sinagogara,
Otoitz egiten utzi hots baten itzalari
Edo nire hazi gazia ereingo dut
Belo beltzaren azken bailaran, dolu

Umearen heriotzak duen maiestate eta suaz.
Ez dut hilko gizadia
Egia handi batekin joan izanaz
Eta ez dut irainduko arnasaren bidaia
Inozentzia eta gaztetasunezko
Beste eresi batekin.

Sakon, lehen hildakoarekin datza Londresko alaba,
Eta lagun zaharrek beztitzen dute,
Bere amaren zain beltzak eta adinaz gaindiko
aleekin batera,
Tamesis bizkorraren
Ur axolagabeek gordeta.
Lehen heriotza eta gero, ez dago beste bat.

Neguko ipuin batena

Neguko ipuin bat da
Ilunabar elurtuak, txaluparen gisan, lakuak zeharkatzen dituela
Ibar erdiko baserritik lursail hegalarien gainean dabilela
Eskuz egindako maluta artean haizerik gabe egiten du aurrera;
Abereen arnas zurbila haren bela isilerantz

Izarrak, hotz, jausten dira
Belar ondu eta elurraren urrina, pleguen artean
Hontz urrutiak mehatxu egiten du, eta izotzezko barrutia
Basetxe-abituari zerion ke ardi-zuriz josia
Ibaien ibarrean, non kontatu baitzen ipuina.

Behin, zahartutako munduan
Fede-izar batean, purua noraezeko ogia edo elurraren sua
Eta jana bezain, gizon batek bihotza eta burua

Erretzen zizkioten suzko bilkariak ireki zituen,
lursail pleguan,
Baserri batean, bakarrik eta mindua.

Orduan, kiskaltzen ari zela
Argia su bat den irlan, inguruan hegaldun elurra
eta gorotz-pilak, artilea bezain zuriak, eta oilo
abeslea
Hotz lo, ezen oilarraren sugarrak larre estaliak
orraztu eta
Gizon goiztiarrak irten arte, palak eskuetan,

Arrastaka, abereak
Urduri, sagu-katua pauso ezkutuak ematen,
Txori puztuak jauzi-ehizan, neska jezleak
Abarkak jantzita zeru jausia arin zapaltzen
Eta baserria zeregin zurietara erabat esnatu zela

Belauniko, otoitz, negar
Egin zuen gizonak, labe-zotz eta egur-argitako poto
beltzaren ondoan,
Kopa eta ogi puskak itzal dantzariaren mendean,
Etxe gordean, gau galkorraren altzoan,
Maitasunaren ertzean, ahaztuta, izuetan barrena.

Belauniko, harria hotz,
Saminaren gailurretik negar, zeru estaliari otoitz
Bere gosea uluka joan zedin hezur zuri soilen gainean
Ikuiluetako estatuak eta zeru-sabaizko zerritegiez haraindi,
Ahateen aintzira-kristal eta behitegi distiratsuetan zehar, bakarrik

Otoi-suen etxerantz,
Non jarraituko bailioke bere elurpeko amodio-hodeiari
Gordeleku zurietarantz ihes eginez gero, arin batean.
Uluka eta makur, bere behar gordinak kolpatu zuen,
Hotsik sortu ez bazen ere esku arteko airetik behera.

Bakarrik haizea
Txorien gosea ur-ogizko lursailetan, gari-buruen bila,
Eta uzta birrindu zen haien mihien gainean.

Kiskaltzen eta galduta, izen gabeko beharrak lotu zuen
Elurra bezain hotz ihes egiteko unean, gauak isuritako ibaien arteko

Ibarretan zehar,
Bere nahiaren bihurguneetan itotzeko unean; kiribildurik etzan
Ez-gizakiaren sehaska zuriaren erdi desiratu
Edo emaztegai-ohean, biziarteko xedea baita hala fededun galdua
Nola argitik erbestera amildu zenarentzat.

Aska ezazu, zioen ozenki,
Maitasunean dena galaraziz, eta bota bere beharra,
Bakarra eta biluzik, emaztegai menderatzailearekin,
Inoiz hazi zuriaren lursailetan erne
Edo haragitan hildako denboraren azpian lora ez bedi.

Entzun. Juglareen ahotsa
Herri joanetan. Urretxindorra, lurpeko baso-hauts fina,
Hegaletako lur-apurren gainetik hegan doa

Eta zenduen hego-haizeetara jaurtitzen du bere
neguko ipuina.
Udaberri zurbilaren uretako hauts-hotsa

Kontatzen ari da. Korronte
Zimel kanpaiduna bere mugetan pilatzen. Ihintzak
Hots egiten du, ale egindako hostoetan eta aspaldi
distira gabeko
Elur-parrokian. Harritan irekitako ahoak,
haizearentzako sokak.
Kanta batean denbora, zail hildako malutaren
ahotsa. Entzun.

Esku edo hots batek
Aspaldiko lurrean ate ilun zabala irristarazi zuen,
Eta, etxe-kanpoan, lur-ogian
Igo zen, izpi, txori eme bat emaztegai goria
bailitzan.
Sortu zen eguna legez txori emea, bularra elur-
gorrimina.

Begira. Dantzariak mugitzen
Elurrak hazitako berde hilaren gainean, zoraturik
ilargiaren azpian

Uso-hautsaren gisan. Bozkarioz, zaldi apo astunak,
Zentauro hilak, txori-baserrietako zelai zuriz estaliak
Irauli eta zapaltzen. Hildako haritza maitasun bila
doa.

Harritan egindako gorputz-adarrek
Jauzi, tronpetetarantz. Hosto zaharren kaligrafia
dantzan.
Harrien adin-lerroak tropelean sigi-saga.
Harpa irudiz, uretako hauts-hotsa lursail-plegu bat
jotzen.
Aspaldiko txori emea igo da maitasunaren amorez.
Begira.

Hego basatiak jaso ziren
Buru makurraren gainetik, luma-leun ahotsak
Etxea hegan zeharkatu ahala, txori emeak laudatu
izan balu, edota
Erortze astiroaren aspektu guztiek poz hartuko
balute bezala
Gizon bat bakarrik baitzetzan, belaunikoz, ibarren
erdian.

Mantuan, lasai,

Labe-zotz eta egur-argitako poto beltzaren ondoan.
Orduan, txorizko zeruaren luma-ahots xarmaz,
Haizeak bezala laster egin zuen hegaldi pizgarriaren atzetik,
Haizerik gabeko baserriaren aletegi eta ikuilu itsuez harata.

Urtearen poloetan
Txori beltzak hesi kapadunen gainean apaiz eran hilda
Eta paisaietako oihalen gainetik muino urrunak hurbildu zirenean,
Elurrezko txorimalo batek arin egin zuen hosto bakarreko zuhaitzaren azpian,
Oreinak bezala adardun, sasi-korronteen artean bizkor

Trapu zahar eta otoitzak tontorretan
Behera, belaun bat sakon, laku hozminduetan ozen,
Galdurik gau osoan, urrutira joana txori-emearen atzean,
Maluta astiroen denbora, lur eta tribuetan zehar.
Entzun eta begira nondik dabilen lumadun antzara-itsasoa,

Zerua, txoria, emaztegaia,
Hodeia, beharra, izar landatuak, poza hazi-sailetatik
Harago, haragi denbora-hiltzailearen gainean,
Zeruak, zerua, hilobia, iturri errea.
Aspaldiko lurretan haren heriotzaren ateak albo batera ireki

Eta jaitsi zen txoria.
Baserri kopadun, laku, aireko lursail eta ibaiez
Zeharkatutako ibarren gainean, azken mina
Eta otoi-suen etxera joateko otoitz egin zuen lekuan,
Hor, muino ogi-zuri batean, bukatu zen ipuina.

Dantza itzaltzen ari da
Zurian, dagoeneko berde hazten ez den tokian, eta, juglare hila,
Kantuak gurarien elur-oindun herriak zeharkatu zituen,
Inoiz ogi sakonean txori-figurak ebaki eta beirazko
Lakuen gainean irristaz arrain hegalariak irudikatu

Zituztenak. Errituari

Urretxindorra eta zentauro zaldi hila kendu zaizkio.
Iturriak berriz
Zurbil. Adin-lerroek harrietan lo dira tronpeta-
argitzera arte.
Bozkarioa etzan da. Denborak ehortzi egin ditu fosil
Eta ihintz birsortuaz ezkilak jotzen zituen udaberria.

Txoria bere ohean baitzetzan
Hegal-koro batean, lo sakon edo hil bezala,
Eta zabaldu ziren hegalak gizona loriatu eta
ezkondua zen aldian,
Emaztegai zirraragarria, emakume-bular
Eta zeruzko burua zuen txoriaren izterren artean

Beheratu zuten,
Kiskaltzen ari zela amodiozko emaztegai-ohean, erdi
Desiratzailearen zirimolan, paradisuko pleguetan,
Munduko lore-begi birakari horretan.
Emaztea harekin igo zen, bere elur urtuaz loratzen.

Eta ez da gailenduko heriotza

Eta ez da gailenduko heriotza. Bat izango dira gizon biluzi hilotzak
Haizeetako gizona eta ilbeherarekin.
Beren hezurrak garbi, eta hezur garbiak galtzean,
Izarrak izango dituzte ukondo eta oinen atzetik.
Erotu arren, ez dute galduko sena,
Itsasoan hondoratu arren, azaleratuko dira berriz.
Maitaleak itzali arren, iraungo du maite hotsak.
Eta ez da gailenduko heriotza.

Eta ez da gailenduko heriotza.
Itsas korronteen azpian, ez da inoiz
Haien atsedena haize bolada batez hilko.
Nerbioek ematean, iraulkatzen dira bizkor,
Gurpil bati lotuta, baina ez dira hautsiko.
Haien fedea bitan puskaturik,
Zeharkatuko dituzte gaitz adar-bakarrek.
Hondarrak arte banandurik, ez dira zatituko.
Eta ez da gailenduko heriotza.

Ez da gailenduko heriotza.
Kaioen karrankak ez dira haiengana iritsiko
Ez dira olatuak bortitz itsasertzean lehertuko.
Lore bat loratu zen lekuan, lore batek ez du
Bere burua altxatuko euri oldarren aurka tinko.
Ero, eta burdin zati bat bezain hilotz,
Haien buruak larreko lore artean dira kolpeka.
Eguzkira jauzi eguzkiak behera egin arte,
Eta ez da gailenduko heriotza.

Argia hedatu

Argia hedatu, eta ez giza itxuradun ilargia estali,
Ez askatu hezurretaraino iristen ez den haizerik,
Baina erantzi hamabi haizeko hezur mamia bere
zirkulutik;
Gauaren jabe izan, ez men egin elur-gizonaren
burmuinari
Horrek aireko gai hostotsu guztiak hartzen baititu
Izotz-kandela antzeko iparrizar bihurtzeko.

Udaberriaz xuxurlatu, eta ez zapaldu oilar gaztearen
arrautzak,
Ez zanpatu beste piku-sasoi bat,
Baina lau fruitudun bide hauek txertatu zure
lurrean;
Izotzaldi-baserritar, suak elkartuta
Zuhaitz begi-gorrien artean elur haziak erein dira,
Zure gazte urteetan, landare gizaldian.

Aita itzazu guztiak, eta ez ahaztu euli-jaunaren
aldea,
Ez ernatu hontz-hazian, iratxo-ehiztariak bezala,

Baina zure azti saihetsez bihotz formako planeta hau
astindu;
Ahots hilkorretatik inozoen korora,
On jaun altua, ozenago kanta dezan hodeiak,
Lur azpiko errotik mandragora musika atera.

Giza-gairik gabe bueltak eman eskukada birakarian,
Oi, itsas-uztaia, eta ez penatu aldentzen naizen
artean
Nire maitale hilkorrengandik, istriborreko
irribarrez;
Nire maitasuna hezur-gurutzezko saihesbidean
datzanean ere,
Arku-gezidun hegaztien artean biluzik,
Ez zara oilar izango ardatz iletsu batean.

Itsaso hauei kolorea eta forma eman zienak
Itxuratu zituen nire lohi-kideak, eta zeruaren kutxa
Bere koloredun bikiez bete uholde garaian;
Oi, mapa itxuragabeetan gailen dena,
Egin nitaz mundua, nik egin dudan bezala
Zure uztai ibiltariaz giza itxura zoriontsu bat.

Autorearen hitzaurrea

Husten ari da eguna
Jainkoak bizkortu duen uda bukaeran
Uharka dabil izokin koloreko eguzkia
Itsasoak astintzen duen nire etxean
Harri bizkorren gainean
Txio-fruituez nahasita
Bits, flauta, arrain-hegal eta luma
Baso baten apo dantzarian
Itsas-izardun hondar zikinen ondoan
Arrain-saltzaile gurutzeaz
Kaio, gaita-jole, berberetxo, eta belak,
Hor, kanpoan, bele beltz, gizonak
Hodeien aurkari, eta hodeiak
Ilunabar-sareetan abaildurik.
Antzarak zeruetan ia, mutilak
Sastakaiez, eta koartzak, eta zazpi itsaso
Mintzo diren maskorrak,
Ur eternalek bereizita
Bederatzi egunetako gauak dituzten
Hirietatik; hor dorreek
Arrantzatuko baitute

Haize erlijiozkoan
Lasto zurtoin luze eta lehorrek bezala
Bake pobrean kantatzen dut
Zuentzako, ezezagunok (kantua
Ekintza sutsu eta tontorzalea bada ere,
Hegazti-sua
Munduko zur birakarian,
Nire soinu zerratu eta irekientzat),
Itsasoak ukitutako hosto hauetatik
Hegan eta jausiko direnak
Zuhaitz hostoak bezala, eta laster
Hondatu, deshilko
Udako gau sargorian.
Itsasora izokina, zukuturik eguzkia
Zisne mutuek kolpez urdindu dute
Laztandu nuen badiaren iluntzea, forma nahaste hau
Ebakitzen dudan bitartean
Jakin dezazun
Nik ere, gizaki birakari honek,
Maite dudala izar hau, txoriek
Orrotu, itsasoak sortu, gizonak urratu, odolak
bedeinkatu zuena.
Entzun: tronpetaz beteko dut leku hau,
Arrain, muino saltariok! Ikusi:

Eraikitzen ari naiz nire arka marrularia
Bihotz-bihotzetik,
Uholdea hasi baita:
Iturriari dario
Beldurra, haserre gorri, gizakia ere,
Urturik, menditsu isuri daitezen
Zauri amestiaren gainetik
Ardiak zuri, baserriak hutsik.

Galesentzat ene beso artean.
Oi, han, gazteluko dorrean,
Hontz-errege kantariok, aldizkako lasterrak
Ilargiz betetzen duzue, eta uretan
Ito bailaraz jantzitako piztiak!
Hara, berunezko muinoetan,
Oi, ene uso eraztun bihurduna
Uluka, ilun ia
Bele galestar adeitsuarekin batera,
Kurruka basoen laudorioan,
Kabiatik behera nota ilunak isurtzen
Kurlinten gainean!
Horra, sendi zaratatsu hori
Moko zabalik, eta mokoetan
Mina, gailur berritsuetan!

Aizak, zaldi-bizkar muinoan,
Erbi nahasgarri hori! Hor
Entzuten ari zara azeri arin hau, nire
Uholde-ontziaren zarata; nire lana eta kolpeak
(Ingude talka bat nire iskanbila
Eta biolinentzat, astaputz mihidun doinu honetan!)
Baina animaliak elkarren lagun min dira
Jainkozko lur latz irristarietan
(Gora Haren piztitasuna!).
Piztiak, lo arin eta on,
Ixo, zerri-bizkar basoan! Lastoz
Beteriko baserri hutsak ur
Meta batean lurrari eusten kakaraz,
Eta teilatuak gerrari eguna pizten!
Oi, hegal, azal eta lumadun
Auzokoen erresuma, bat-bateko distira
Nire oihalezko arka eta ilargiarentzat
Badiatik edaten ari da Noe,
Bilo, ezkata eta artile:
Ardi eta elizen ezkilak bakarrik
Entzun daitezke, sakon, urpean;
Bake pobrea eguzkiaren gainbeheran
Eta ilunak larre sakratu oro hartzen du.
Ekaitzari bakarrik aurre egingo diogu; orduan,

Galesko izarren azpian,
Oihuka: “Hamaika arka!” Uraz
Estalitako lurretan zehar,
Haien maitasunak lagun, mugituko dira
Egurrezko irlak bailiran, muinoz muino.
Hara, nire brankako uso txirularia!
Kaixo, itsas-hankadun azeri zaharra,
Tom sagartxori eta Dai sagua!
Nire arkak eguzkitan kantatzen du
Jainkoak bizkortu duen uda bukaeran
Orain loratzen ari baita uholdea.

Gizonak baino ez ginela

Gizonak baino ez ginela, zuhaitzetara sartu ginen
Beldurrez, gure silabak samurtzen
Beleak esnatzeko beldurrez,
Hego eta karrankaz beteriko munduan
Isilik sartzeko beldurra.

Umeak bagina zuhaitzetan igo gintezke,
Lotan harrapatu beleak, adaxkarik hautsi ez
Eta, eskalatze samurraren ondotik,
Gure buruak atera adaburuen gainetik
Izar betierekoez liluratzera.

Nahasmen hutsetik, hura baita bidea,
Eta miraria, gizonak baitaki
Kaosetik datorkigula zorion betea.

Eta, esan genuen, hori da ederra,
Umeen lilura izarrei beha,
Hori da amaiera zein xedea.

Gizonak baino ez ginela, zuhaitzetara sartu ginen.

Su-bonbardaketa osteko zeremonia

I

Nire buruak
Mingarriak
Minez
Heriotza nekaezinera arte erretako kalean
Ordu gutxitako umea
Aho oratzaileaz
Errauts eginik datza amak palaz egin zuen
Hobi-bular beltzean, suak besoetan.

Hasi
Kantuarekin,
Kanta
Hasierara berpiztutako iluna
Mihi harrapatuak baietz zioenean itsu,
Hautsi zen izar bat
Umearen mendeetan
Nire buruak min dira, eta miraririk ez du
ordainduko.

Barka
Gaitzazu, barka
Emai-
Guzu zure heriotza nire buruok, sinestunok,
Uholde izugarri batean eutsi diezaiogun
Odola isuri arte,
Hautsak kanta dezan txoria bailitz
Alea da haiza, heriotza hazi, gure bihotzetik.

Negarrez
Zure hil
Negarra,
Oilar gaindiko umea, suak txikituriko kale ondoan
Itsaso hegalaria salmoz kantatzen dugu
Gorputz hustuan.
Amodioa azken hitz-argia ohi da. Oi,
Seme hazia sabeleko azal beltz utzian.

II

Ez dakit
Adan ala Eba, idi saindu dotore

Ala bildots eme zuria
Birjina aukeratua, bestela,
Etzanik bere elurrean,
Londresko aldare,
Hiltzen lehena
Burezur tipi barruko hausterretan,
Oi, emazte-senargaiok
Oi, Adan eta Eba batera
Etzanda, atsedenean
Hilarri-bular tristearen azpian,
Edengo lorategiko
Eskeletoa bezain zuriak.

Badakit
Adan eta Ebaren legenda ez dela
Une batez ere isilik nire zerbitzuan
Ume hilen inguruan
Ume bakarraren inguruan,
Apaiz eta zerbitzariak izan zena,
Hitz, kantari, eta mihi
Burezur tipi barruko hausterretan,
Izan baitzen sugearen
Iluntze eta fruitu, eguzkiaren gisara,
Gizon-emakume deseginak

Hasiera, ilunera birrintzen
Biluzik, patio
Basatian landare-mintegi bat bezala.

III

Organo-hodi eta kanpandorreetara
Argi-katedraletan,
Haize-orratzen mutur urtuetara
Hamabi haizeko biribiletan bihurri,
Orduak erretzen dituen erloju hilera
Sabbath-eko kutxa gainetik
Argitzearen hobi zurrunbiloaren gainetik
Eguzki-etxola eta suzko auzo pobrearen gainetik
Requiemean etzanda diren urrezko ezpaloi gainetik,
Estatua multzoen kalderoietara,
Sugar-galsoroak emandako ogira,
Brandiak bezala erretzen duen ardora,
Itsasoko mezak
Itsas-azpiko mezak
Itsaso ume-ekarlearen mezak
Leher, iturri bihur eta betirako esateko datoz:
Loria, loria, loria
Genesi-burrunbaren erreinu lazgarri eta azkena.

Ez aise hartu gau on hura

Ez aise hartu gau on hura
Adin zaharrak behar du erre, dena eman egunaren bukaeran
Haserretu, indar egin argia hiltzearen aurka.

Gizon azkarrek badakite, beren amaieran, zuzen dela iluna
Baina ez baitute hitzez harrapatu argia
Ez dute aise hartzen gau on hura.

Gizon onak, azken olatuaren aurrean, negarrez dira
Iraganekoak imajinatzen badia berde batean dantzan;
Haserre, indar dagite argiaren heriotzaren aurka.

Gizon salbaiak, eguzkia kantatu eta harrapatu zutenak,
Ohartu dira, beranduegi, hura zimeltzen ari zirela; haiek ere
Ez dute aise hartzen gau on hura.

Gizon serioek, heriotza hurren, ikusmen argiaz
dakuste
Distira dezaketela begi itsuek izarrak bailiran,
zorionez;
Haserre, indar dagite argiaren heriotzaren aurka.

Eta zu, aita, gailur triste horretan zara pausan
Madarika eta bedeinka nazazu zure malko
mingarriez; arren,
Ez aise hartu gau on hura.
Haserre, indar egin argiaren heriotzaren aurka.

Eresia

Hiltzeko harroegi, itsu eta puskatan zen hil
Ezer baino ilunago, ez zuen atzera egin
Gizon hotz eta atsegina, ausart bere harrotasun
gorian.

Egunik ilunena. Betiereko bizi bedi
Arin, behingoz, muino azken eta gurutzatuan
Gazte haz hadila, maiteminez belar azpian

Artalde luzeen artean, galduko ez ahal da inoiz
Ez geldi egon ere, bere hil egun guztietan; edozer
baino
Amaren bularra irrikatu arren

Atseden eta hauts bular zena, lur gozoan
Heriotzaren justiziarik ilunena, itsu, dohakabea.
Atsedenik ez diot opa, baizik semetzat har eta aurki
dezaten

Erregutu nuen makur-gelan, bere ohe itsuaren
ondoan,

Etxe isilean, minutu bat zela falta
Eguerdi, gau, eta argirako. Hilen ibaiak

Mugitu ziren esku gaixoan, heltzen nintzela ari,
Eta begi itzalietan ikusi nituen itsasoaren sustraiak.
Lasai zoaz zeure muino kruzifikatura, esan nion

Bere gorputza utzi zuen aireari.

Udaberri honetan

Udaberri honetan, izarrak hutsarekin doaz;
Negu apaindu honetan
Erruz ari du eguraldi gordina
Eta udaberriko txori bat lurperatu du udak.

Urteen itzuli geldotik hautatutako sinboloek,
Lau urtaroen kostaldean zehar,
Hiru urtaroren suak eta lau txoriren notak
Irakasten dituzte udazkenean.

Zuhaitzengatik antzeman beharko nuke uda;
zizareek,
Antzematekotan, neguko ekaitzak edo eguzkiaren
Hileta antzematen dute;
Udaberria kukuen kantuaz ikasi beharko nuke,
Eta bareak suntsipena beharko lidake irakatsi.

Zizareak erlojuak baino hobe antzematen du uda,
Eta egutegi biziduna da barea;
Zer esan nahi du ordea denboraz kanpoko
intsektuak
Esaten badu mundua higatzen ari dela?

Nire genesia amestu nuen

Nire genesia amestu nuen izerditan, maskor
Birakaria zeharkatzen, sendo
Taladro-gihar motor bezala, habe
Egindako nerbio eta ikuskarian zehar.

Zizare neurriko gorputz-ataletatik, haragi
Zimurtsutik erauzirik, belarreko
Burdina guztiek karrakaturik; eguzki-metala
Gau gizaki-desegilean.

Amodio-tantari eusten dioten bena gorrien oinorde,
kostata
Izaki bat nintzelarik nire hezurretan
Jarauntsitako globoa harrotu nuen; bidaia
Martxa geldoan gau-gizonean zehar.

Nire genesia amestu nuen eta berriz hil, metraila
Abian zen bihotzari oldarka, zulo bat
Jositako zauri eta haize gatzatuan, heriotza isilik
Gasa jan zuen ahoan.

Zorrotz markatu nituen muinoak bigarren heriotzan,
landare
Pozoi eta aizto uzta, nire odola
Herdoiltzen hilotz baretuen gainean, bigarren aldiz
Belarretik indar egitera behartuz.

Ahalmena kutsakorra zen jaiotzean, hezurduraren
Bigarren susperraldia eta
Mamu biluziaren bigarren janztea. Gizatasunak
Oka egin zuen birsufritutako minez.

Nire genesia amestu nuen hil-izerditan, birritan
Itsaso elikatzailean jausia, Adanen
Ur gaziak garraztua ezen, gizaki
Berriak dakarren indarraren ikuskari, eguzkiaren
bila noan arte.

Loarekin adiskidetu nintzen

Loarekin adiskidetu nintzen eta hark garunean musukatu,
Denbora-malko bati erortzen utzi; lo datzan begiak,
Argira aldatuz norantza, ilargi baten gisara bira egin zuen niregan.
Orpo hegalariez, beraz, nire buruan zehar egin nuen hegan,
Erori, gero, ametsetan, behetik goranzko zeruan.

Lurretik ihes eta eguraldian gora egin nuen biluzik,
Izarretatik at bigarren zoru batera heldu arte;
Han negar egin genuen, nik eta mamutzako beste batek,
Nire amen begipean, adaburuen gainetik;
Luma baten arinez utzi nuen lur hori.

“Nire aiten globoak bere zilborra kolpatu eta abesten du”
“Ibiltzen dugun hau ere bazen zure aiten lurra”
“Baina honek aingeru konpainiak ditu barruan,
Eztiak dira haien aurpegi aitatu hegodunak”

“Hauek gizon ameslariak baino ez dira. Hats egin,
eta badoaz”

Joan zen nire ukondoko mamua, amen begipean
zetzana,
Aingeruei putz eginez galdu nintzenean
Itzal hilobi-zaindari bakoitzaren kostako hodeian;
Putz egin, eta ameskideak beren ohetara bidali
nituen,
Oraindik lo baitautza bertan, beren mamuen berririk
gabe.

Orduan aire bizidunaren materia guztiak
Deiadar egin zuen eta, hitzetan gora eginez,
Nire ikuskaria azaldu nuen eskuz eta ilez:
Hain arina da lurrezko izar honetan lo egitea,
Hain sakona mundutar hodeietan esnatzea.

Orduen eskailera luzatzen ari da eguzkirantz,
Bakoitzak galera edo amodio bat hots eginda
aurrekoari,
Giza odolak neurri guztiak tximuturik.
Gizon zahar-ero bat bere mamuan gora oraindik,
Eurian gora egiten ari baita nire aiten mamua.

Udako mutilak dakuskit

I

Udako mutilak dakuskit, beren gainbeheran
Urrezko hamarrenak antzutzen
Uzta-gordekinak prestatu gabe, lurrak izozten;
Barneko beroaz, amodio izoztuen
Neguko uholdeak haien nesken bila doaz,
Ontziko sagarrak beren uretan itoaz.

Argiaren mutil hauek izozleak dira beren
zozokerian,
Ozpintzen dute ezti beroa;
Izotz zurizkoak, lapurretan erlauntzean;
Eguzkipean, zalantza eta ilunezko izotz-hariek
Haien nerbioak elikatzen dituzte;
Ilargi salataria zero da haien hutsetan.

Udako umeak dakuskit beren amen baitan
Umetoki gihartsuen eguraldiak zatitzen,
Maitagarri behatz lodiz gau eta egunak bereizten;
Lau puskatan banatutako eguzki eta ilargi

Itzalekin sakonean, dikeak marrazten dituzte
Eta eguzkiak, bitartean, beren buruen oskola.

Ikusten dut mutil hauengandik ezerezezko gizonak
Haziko direla hazi-aldaketaz,
Edo airea hondatuko dutela beroaldi baten jauziaz;
Haien bihotzetatik amodio eta argi pultsu goriak
Erretzen die eztarria.
O, begira udako pultsua izotz gainean.

II

Urtaroei aurre egin behar zaie, baina, edo
balantzaka
Ibiliko dira laurden dandari baterantz, bestela
Non, heriotza bezain puntualak, izarren hotsa pizten
baitugu;
Han, bere gauean, neguko gizonak nekaturik
Ezkila mihibeltzak jotzen ditu,
Baina gauerdiko ilargia putz egin ez, horrek putz
egin ahala.

Oro-ukatzaile ilunak gara, heriotza dei dezagun

Udako andre batengandik,
Bizitza gihartsu bat maitale arranpatuengandik,
Itsasoa hartu duten hilotz zurbilez
Davyren lanparako zizare begiargia,
Eta umetoki ernetik lasto-gizona.
Guk, udako mutilok lau haizeetako biratze honetan,
Algetako burdinaren berdea garenok,
Itsaso ozenari eusten diogu eta bere txoriei jausten utzi,
Olatu-bitsezko munduaren bola hartzen dugu
Bere mareekin basamortuak itotzeko,
Eta zelaiak orraztu, koro bat egiteko.

Gorostiaz gurutzatzen dugu kopeta udaberrian,
Garraiatzen dugu odola eta fruitua,
Eta kide alaiak zuhaitzetan iltzatu;
Amodio-gihar umela lehortu eta hiltzen da hemen,
Maitasun ezaren harrobian muxu bat hausten da hemen.
O, ikusi promesa makilak mutilengan.

III

Ikusten zaituztet, udako mutilak, zeuen gainbeheran.
Bere larbaren lur antzuetako gizona.
Mutil bete eta arrotzak dira poltsan.
Zuen aita zen gizona naiz.
Suharri eta brearen semeak gara.
O, ikusi makilak musuka elkar topatzean.

Nire irudi korapilatuan

I

Nire irudi korapilatuan, bi mailatan nabil arin,
Giza mineraletan forjaturik, hizlari kirrinkari
Nire mamua metalean irudikatzen,
Mundu biki honen ezkatek ordezkoa zapaltzen dute,
Nire mamu erdiak, armaduraz jantzita, lekuari
eusten diot heriotzaren korridorean,
Burdinazko nire buruarengana
zelatan hurbiltzen ari da.

Kondenaturik erraboil barnetik, udaberriak bere
korapiloak askatzen ditu,
Gurpil birakariak bezain argi, sasoi kolikoa
Lore-hosto mundu batez egina;
Landare-izerdi eta orratzen jostura desegiten du,
odol eta burbuila
Pinu erroen irudikoak, gizakia suspertzen ari da
mendia bailitz
Errai biluzietatik kanpora.

Kondenaturik mamu barnetik, loratzen ari diren
mirariekin batera,
Irudietan irudiena, nire metalezko mamua
Kanpai loreetan zehar indarrez aurrera,
Nire orrizko gizonak brontzezko erroak ditu; hilkor,
deshilkor dela,
Nik, arrosa eta giza mugimendu fusioan,
Sortzen dut mirari bikoitz hau bera.

Hauxe gizonaren patua: arrisku naturala,
Dorre garai bat, hezurrezko barandaz eta jaberik ez,
Heriotza naturalagorik ez da;
Orduan itzalgabeko gizon edo idiek, eta demonio
marraztuek,
Eragozpen hilaz dakarte isiltasunaren bahituran
Paralelo naturala.

Zuhaitz eta izerdi tunel okerraren zelatan nire
irudiak,
Igarotze arriskutsuagorik ez da, pauso berde eta
kimuak
Giza urratsetan gora;
Ni, osin zuhaitz batean zurezko intsektuarekin
batera,

Barraskilo eta loredun mahatsen beirazko ohean,
Eguraldiaren eroria entzuten.

Amaiera-gizatasun korapilatsua, aurkari ahulak,
Erloju-orratzen arabera sinbolodun portutik
abiaturik
Azken ura aurkitu dute
Galkorren ordokian agur biak jasotzean.
Lautadan zehar nabigatzen ari dira, partitzera doan
abentura
Itsasoak haizatutako helmugara.

II

Gora doaz landako pinakuluan,
Hamabi haizek elkar topatzen dute belarretako
anfitrioi zuriaren eskuz,
Muinozko hesien artean kortaratzen dituzte
gidaridun larreak;
Horra hor urtxintxa estropezu egiten,
Barraskiloa arduragabe lore inguruan lasterka,
Espiral haizetsu batean eguraldi eta zuhaitzen
arteko liskarra.

Sakonean murgildu ahala pausatzen da hautsa
—Hartxintxar hilotza—, lodi jausi etengabean,
Ur-errepidean behera, non itsas-hartza eta berdela
Itsaso luzea arteria-bide bihurtzen baitute
Eta petrolio-aurpegi batentzat etsaiak ikusgaitz
Gidari gabeak hiltzen ubidearen harresi parean.

(Heriotza bidez,
Begi luzeari zirrikitua irekitzen, eta espiral
kartzelaria,
Zure hilobi kiribila bular-muin eta zilbor erdian,
Sudur zuloaren lepoa,
Maskara eta eter azpian, labana sorta
Odoleztatzen, hileta antiseptikoa;

Atera patruila beltza,
Zure ofizial piztiak eta armada ustela,
Sakristau zentinela, kardu azpian kuartela,
Oilarra bere gorotz-larrean
Lazarori kakaratzen goiza banitatea dela,
Hautsa izan bedi zure salbatzailea lur
bedeinkatuaren azpian.)

Haiek ito ahala, kanpai-hotsak zabaltzen dira,
Urpeko izakiaren kanpaiak, itsas langarraren dorrean,
Hots egiten du samur Itsaso Hilaren gainean;
Urpean harrapaturik, ezen tritona zintzilik egon arte
Bale-belar horiz lotuta, urkatzailearen txalupatik behera,
Entzuten dituzte gatz-beira apurleak eta ehorzketa mihiak.

(Alboratu itsas-ardatza,
Lur urratua biraka, ezen tximistaren orratzak
Ahots-aurpegi hau itsutzen baitu ilargi bihurtutako mahaian,
Konta ditzan argizari-diskoak
Lotsari eta desohore hezeak, erlikiarik urratu izana.
Hauek dira zure urteen epaile. Zutik darrai mundu biribilak.)

III

Ur ez-hila sufritzen dute, dortokak hozka dagien lekua,

Itsasoz inguraturiko dorreetara datoz, zuntz eskalan,
Haragizko burezur
Eta zelula gaineko dedalaren hegaldia;
Sufritu, hankaz gora zaudetelarik, ordezko aingeru bat
Harrizko kutxatik ernatu baita,
Aran irletako zuhaitz bailitzan.

Zuen mamu bakarrak zula zaitzatela, haren punta zorrotza,
Metal eta irudi gorputz gabea, ergelkeria makila batean
Izarrei begira Jakoben angeluan,
Ke muino eta edalearen harana,
Eta Hamlet urpean hamar metro aitaren koral gainean,
Burdinazko distantzian gora bultzatzen Erpurutxoren ikuspegia.

Sufritu hegal berdezko uzta-hondarren sastakada,
Ontzien itsasoak puska zaitzatela giza hariari lotuta
Hezur prestatuen beheranzko bidaia
Muskuluen urperatzean;

Amore eman, maitaleok, kutxak, eta itsas-
argizariaren borroka,
Maitatu behe lainoak bezala edo su eman aingira
ohean zehar.

Borborka ari den zirkuluaren pintzetan,
Itsasoa eta tresna, denboraren gelatan marratzen
zuen,
Nire odol bikainaren batasun burdinazkoak
Uholdezko auzoan,
Ni, haize sutsu batean, Adanen sehaska berdetik,
Gizon magikoagorik ez da, haginez kanporatu du
krokodiloa.

Ezkatak gizona ziren, herio-txoriak esmaltearen
gainean,
Isats, Nilo, eta mutur, uhar-uhalgile bat,
Ordugabeko etxeetan denbora
Itsasoan sortutako burezurra astintzen
Eta, grial hegalariaren gaineko koipe eta
baltsamoengatik bezala,
Gizon hustuak bere jantzi zuriengatik egin zuen
negar.

Gizona Hilotzaren estalkia zen, arnes-mantua,
Gizonaren jauna zen sakon ustela, haizearen gisan,
Nire mamua bere metalezko neptunoan
Giza mineralez sortuta.
Hau zen hasierako jainkoa itsas-zurrunbilo
korapilatsuan;
Nire irudiek orro egin zuten, eta zutik jarri zerutiar
muino batean.

Gu hondartzan etzanda

Gu hondartzan etzanda, horia eta
Itsaso serioari begira, erreka gorrien
Jarraitzaileez trufa direnen itxuraz, txitxar
Itzaletik kanpoko hitz-ganbara hutsa,
Hondar eta itsasozko hilobi hori honetan
Haize deiak koloreari baitio deitzen,
Hilobi eta itsasoak bezain serio eta alaia denez
Lo datza ezein eskutan.
Isilune ilargitarrak, korronte isila
Ubide geldiak ibiltzen, mareen jaun lehorra
Basamortu eta ur-ekaitzaren artean,
Gure ur-eriak behar lituzkete sendatu
Lasaitasun kolore-bakarrez;
Hondar gainean musika zerutiarrak
Pikorrekin batera dagi hots, laster
Itsasertzeko lur serio eta alaiarengandik
Urrezko mendi eta jauregiak ezkutatzeko.
Zinta ahalguztidun batez loturik, etzanda gaude,
Horiari begira, desiratzen haizeak itsasertzeko
Estratuak eraman ditzan, urperatzea harri gorria;
Baina nahiak antzuak dira, eta

Ezin da harrien etorrera saihestu;
Oi ene bihotzeko odola, etzan horiari begira
Urrezko denboralea etorri arte, bihotz eta muinoen
gisan.

Salbatzaile bat bazen

Salbatzaile bat bazen
Radioa baino bakanagoa,
Ura baino arruntagoa, egia baino krudelagoa;
Umeak, eguzkitik gordean
Batzartu ziren bere ahoan
Entzuteko urrezko nota erritmo bihurtzen,
Beren desiren menpeko, giltza gabeko irrien ikas-
kaioletan
Begiak zerratu zituzten.

Umeen ahotsak, dio
Oihan galdu batetik
Lasaitasuna zela egiteke bere ezinegon seguruan
Eta, oztopatzaileak gizakia,
Animalia edo txoria kolpatzean
Arnas hiltzaile hartan ezkutatu genituen geure
beldurrak;
Isiltasuna, isiltasun egitekoa, lurra ozendu zenean,
Oihu latzaz gordeleku eta babes-etxeetan.

Loria zen entzuteko

Haren malko-elizetan,
Beso bigunaren azpian hasperen, berak igurtzi
ahala;
Oi zu, negar ez zegikeena,
Lurrera jausirik, gizonik hiltzean!
Ezarri ezazu poz-malko bat uholde ikusezin hartan
Eta ipini musua hodei formako maskorraren kontra:
Ilunpean zu eta biok baino ez gaude jada.

Bi anai belztu, harro, negarrez,
Neguaz elkarrekin lotuak
Urte huts babesgabe honi;
Oi gu, mugi ez zezaketenak
Hasperen soil bat entzutean
Hurkoari jipoia, auzokoari sua, horren handinahia,
Baina kexu eta sehaskadun ginen pareta zeru-
urdinean;
Orain malko erraldoi bat isuri dugu porrot
ezezagunaz

Etxeen abailtzeaz,
Ez baitzituzten gure hezurrak jaso,
Aurkitu gabeen heriotza ausartak,
Begira orain, bakarrik guregan,

Geure ezezagun-hauts propioa
Sekulan inor sartu gabeko gure etxera isurtzen.
Geuregan deserriraturik, deitzen diogu karga eta armarik gabe
Arroka oro kiskaltzeko gai den zetazko maitasun lakar eta leunari.

Garo muinoa

Gazte eta arin nintzela sagardun adarren azpian
Etxe kantaria ondoan eta pozik, belardia berde zen
adina;
Izartsu, haran gaineko gaua,
Denborak uzten zidan agur esan eta goratzen
Urrez, haren begien loraldian,
Gurdien artean ohoratua, sagar-auzoen printze
nintzen
Eta behin baten azpian, maisu, mendean nituen
zuhaitz eta orriak
Margarita eta garagarrarekin joan zitezen
Jausitako argi-uztaren isurietan behera.

Berde eta axolagabe nintzela, biltegietan ezaguna,
Zorioneko patioaren inguruan kantari, etxe bainuen
baserria,
Bakarrik behin gazte den eguzkiaren azpian,
Denborak uzten zidan jolasten eta urre
Izaten bere bitartekoen errukiaz;
Berde eta urrezko nintzen, ehiztari eta abeltzain,
kumeak kantari

Nire adarraren atzetik, muinoetan azeriak zaunka
berriz, hotz eta argi,
Eta Sabbath-a entzun zen emeki
Korronte santuen harri-koxkorren gainetik.

Eguzki osoan zehar dena zen korrika, zen
maitagarri, belar lehor
Zelaiak etxea bezain altuak, tximinien melodiak, zen
airea
Eta jolasa, maitagarri eta urtsua;
Sua berde, belarra bezainbeste.
Izar sinpleen azpian, gautar,
Lotara joan ahala hontzek baserria zeramaten
urrun;
Ilargi osoan zehar entzun nituen, zalditegien artean
ohoratua, zata-txoriak
Belar-metekin hegan, eta zaldiak
Distiratzen ilunerantz.

Orduan esnatu, eta, baserria, ihintzak zuritutako
izaki
Alderrai bat bezala, itzultzen zen, oilarra bizkarrean;
dena zen
Distira, zen Adan eta dontzeila,

Zerua berriz batzen zen
Eta egun hartantxe eguzkia biribildu.
Argi soilaren jaiotza ostean behar zuen,
Lehen leku, leku birakarian, zaldi sorginduak ibili
zirela, bero,
Zalditegi irrintzikari berdetik
Laudorioen zelaietara.

Azeri eta faisaiek ohoratua, etxe alaiaren ondotik
Hodei egin berrien azpian eta zoriontsu, bihotza
luze zen adina,
Behin eta berriz jaiotako eguzkiaren argitan,
Korrika joan nintzen nire arduragabeko bideetan,
Nire desirak lasterka etxea bezain altuak ziren belar
lehorretan zehar
Eta axola ez zidan, nire zeru urdin kontuetan,
denborak uzteak,
Bere biratze melodikoan, goiz kantu hain gutxi eta
hain halakoak,
Ume berde eta urrezkoak
Dohainetik kanpora segitu baino lehen.

Ez zidan axola, egun bildots-zurietan, denborak ni
eramateak

Enaraz beteriko ganbarara nire eskuaren itzalaz
beraz,
Beti gora doan ilargipean,
Ezta ere lotara abiatzean
Bera entzungo nuela zelai garaiekin hegan;
Esnatuko nintzela, orduan, baserria umegabeko
lurretik betiko joana.
Gazte eta arin nintzela bere bitartekoen errukiaz,
Denborak gordetzen ninduen berde eta hil hurren
Kateaturik abestu nuen arren, itsasoak legez.